

TXANOGORRITXU

1- Txanogorritxu amarekin goxatzen ari da.

2- Amak Txanogorritxuri erraten dio :

« Zure Amatxiren etxera joan behar duzu. Aspertzen da bere etxean bakarrik, orduan maite duen txokolatezko bixkotxa eramanen diozu. Biek elkarrekin, arratsaskari ona egingen duzue. »

3- Amak, bixkotxa zaku batean ezarria du.

« Zoaz orain, eta kasu egizu bidean. Otsoa aurkitzen baduzu, segi ibiltzen animalia gaizto honi pitxik erran gabe. »

4- Txanogorritxu Amatxiren etxera joaten da. Oihana zeharkatzen du.

5- Bat-batean, otsoa agertzen da :

« Egun on, neska pollita, nora zoaz ? »

« Banoa Amatxiren etxera. Amak egina duen txokolatezko bixkotxa eramaten diot. » dio Txanogorritxuk.

« Eta non bizi da zure amatxi ? » galdetzen dio otsoak.

« Hantxe, urrunago, oihanburuan den etxetoan. » salatzen dio neskak.

6- Otsoa lasterka, korrika, saltoka badoa amatxiren etxeraino.

7- Atea jotzen du eta Txanogorritxuren ahotsa harturik mintzo da :

« Kas, kas, kas... Egun on, Amatxi, ni naiz, Txanogorritxu. »

Amatxik alaiki etxearen barnetik ihardesten dio :

“Bai, zu zara, maitea, aitzina ! »

8- Otsoa sartzen da eta segidan, kroxxk, kraxk eta glup, ahamen batez amatxi irensten du.

Ondotik haren jantziak soinean ezartzen ditu.

9- Geroxago, Txanogorritxu Amatxiren etxeraino heltzen da.

Ohartzen da atea irekia dela, eta etxean sartzen da.

10- Txanogorritxuri iduritzen zaio gaur Amatxi ez dela usaian bezalakoa. Egia erran, pixka bat bitxia atzematen du. Galdezka hasten da :

« Baina, Amatxi, zer begi handiak dituzun ! »

« Bai, hobeki ikusteko », dio besteak.

« Baina, Amatxi, zer belarri luzeak dituzun ! »

« Bai, hobeki entzutzeko », dio besteak.

« Baina Amatxi, zer aho zabala duzun ! »

« Bai, hola osorik janen zaitut ! » dio otsoak orroaz.

11- Otsoak, kroxxk, kraxk eta glup, ahamen batez irensten du neska gaixoa.

Aserik, lokartzen da.

12- Amatxiren lagun bat etxe ondoan iragatean, atea irekia dela ohartzen da. Etxean sartzen da.

13- Otso lokartua ikusten duelarik, amaxiren lagunak ganibet zorrotz bat hartzen du eta animalia gaiztoari sabela irekitzen dio.

14- Amatxi eta Txanogorritxu, otsoaren sabeletik ateratzen dira.

15- Lagunaren eskertzeko, txokolatezko bixkotxa partekatzen dute eta hirurek elkarrekin, arratsaskari ona egiten dute.

Azkenean otsoa zakarrontzira botatzen dute.